



## Ezkontza zibilaren eskaera

### Zer behar duzu

- [JustiziaEus-en](#) edo Erregistro Zibilean emango dizuten eskaera, beteta.
- Ezkontideen hitzez hitzeko jaiotza-ziurtagiria. Jaiotzak EAEn inskribatuta badaude, [ziurtagiriak online eskatzeko JustiziaEus-en aplikazioaren bidez](#) eska ditzakezu ziurtagiri horiek.
- Bi ezkontideen azken bi urteetako errolda-ziurtagiria.
- NAN edo pasaporte originala eta fotokopia.
- Azken bi urteetan 25.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan erroldatuta egon bazarete, Erregistroak ediktuak edo ezkondeiak argitaratuko ditu ofizioz 15 egunez, ezkontzeko duzuen asmoa jakinarazteko eta alegazioak aurkezteko epea emateko.

**Kontuz:** jaiotza-ziurtagiriak zein errolda-agiriak gehienez hiru hilabeteko antzinatasuna izan behar dute. Erregistro Zibilean agiriak entregatu ondoren, ez dute iraungitze-datarik izango.

Ezkontzeko hitzordua ematen dizuetenean, adin nagusiko lekuko batekin edo birekin bertaratu beharko duzue.

Gainera, bi kasu hauetako batean bazaude, gainerako agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzu:

### **Dibortziatuta bazaude edo zure aurreko ezkontzaren deuseztasuna lortu baduzu**

- Ezkontzaren hitzez hitzeko ziurtagiria, orri-bazterrean dibortzioaren edo deuseztasunaren oharrarekin. Ezkontza EAEn inskribatuta badago, [JustiziaEus-en eska dezakezu ezkontza ziurtagiria](#)

### **Alarguna bazara**

- Ezkontzaren hitzez hitzeko ziurtagiria. Ezkontza EAEn inskribatuta badago, [JustiziaEus-en eska dezakezu ezkontza ziurtagiria](#).
- Hildako aurreko ezkontidearen heriotzaren hitzez hitzeko ziurtagiria. Heriotza EAEn inskribatuta badago, [JustiziaEus-en eska dezakezu heriotza ziurtagiria](#).

## Solicitud de matrimonio civil

### Qué necesitas

- Rellenar la solicitud que te facilitarán en el Registro Civil o en [JustiziaEus](#).
- Certificado literal de nacimiento de las personas contrayentes. Si los nacimientos están inscritos en Euskadi, puedes [solicitar el certificado de nacimiento a través de JustiziaEus](#).
- Certificado de empadronamiento de los dos últimos años de ambos contrayentes.
- DNI o pasaporte original y fotocopia.
- Si en los dos últimos años habéis estado empadronados en poblaciones de menos de 25.000 habitantes, el Registro publicará de oficio edictos o proclamas durante 15 días, para dar publicidad de vuestra intención de casaros y dar un plazo para la presentación de alegaciones.

**Atención:** tanto el certificado de nacimiento como el de empadronamiento tienen que tener una antigüedad no superior a los tres meses. Una vez has entregado la documentación en el Registro Civil ya no tiene caducidad.

Cuando os den la cita para la celebración del matrimonio deberéis acudir acompañados de uno o dos testigos mayores de edad.

Además, si te encuentras en alguno de estos supuestos deberás aportar la siguiente documentación extra:

### **Si estás divorciado/a o has obtenido la nulidad de tu matrimonio anterior**

- Certificado literal de matrimonio con una anotación marginal de divorcio o nulidad. Si el matrimonio está inscrito en Euskadi, puedes solicitar el [certificado de matrimonio a través de JustiziaEus](#).

### **Si eres viudo/a**

- Certificado literal de matrimonio. Si el matrimonio está inscrito en Euskadi, puedes [solicitar el certificado de matrimonio a través de JustiziaEus](#).
- Certificado literal de defunción del cónyuge anterior fallecido. Si el fallecimiento está inscrito en Euskadi, puedes [solicitar el certificado de defunción a través de JustiziaEus](#).



### Adin txikikoa bazara

- 16 urte baino gehiago badituzu, jaiotzaren hitzez hitzeko ziurtagiriaren orri-bazterrean emantzipazioaren inskripzioa agertu beharko da.
- 14 eta 16 urte bitartean badituzu, lehenengo, lekapean judiziala lortu beharko duzu.

### Atzerritarra bazara

- Egoitza-frogagiri bat, azken bi urteetako edo herrialdean sartu zinenetik aurrerako errolda-ziurtagiria izan daitekeena.
- Zure lege pertsonalaren araberrako egoera zibilaren ziurtagiria. Zure herrialdeko kontsularen ezkontzeko gaitasunaren ziurtagiria aurkeztea nahikoa da.

**Kontuz:** atzerriko agiri guztiak (eleanitzak izan ezik) interprete ofizial batek gaztelaniara itzulita egon behar dute eta Hagako Oharrarekin legeztatuta egon beharko dute.

### Ahalorde bidezko ezkontza bada

- Zure lege pertsonalaren araberrako egoera zibilaren ziurtagiria. Zure herrialdeko kontsularen ezkontzeko gaitasunaren ziurtagiria aurkeztea nahikoa da.
- Zure herrialdeko legeen arabera ediktuak argitaratzea beharrezkoa den edo ez dioen ziurtagiria.
- Notario-ahalordea, behar bezala legeztatutakoa, Espainiako pertsona bati ezkontzeko espedientea eskatzeko, jakinarazpenak jasotzeko eta ezkontza adosteko baimena ematen diona.
- Atzerrian dagoen pertsonaren bizilekutik gertuen dagoen kontsulatuaren edo enbaxadaren helbidea.

**Kontuz:** atzerriko agiri guztiak (eleanitzak izan ezik) interprete ofizial batek gaztelaniara itzulita egon behar dute eta Hagako Oharrarekin legeztatuta egon beharko dute.

### Zu edo zure emaztegaia edo senargaia hiltzeko arriskuan bazaude

Ezkontzeko, ez da beharrezkoa espedientea abiaraztea.

### Si eres menor de edad

- Si tienes más de 16 años, en el certificado literal de nacimiento debe constar en el marginal la inscripción de emancipación.
- Si tienes entre 14 y 16 años, debes obtener primero la dispensa judicial.

### Si eres extranjero/a

- Un justificante de residencia, que puede ser el certificado de empadronamiento de los dos últimos años o desde que entraste al país.
- Acreditación del estado civil conforme a tu ley personal. Es suficiente con que presentes la certificación de aptitud matrimonial del Cónsul de tu país.

**Atención:** todos los documentos extranjeros (excepto los plurilingües) tienen que estar traducidos al castellano por un intérprete oficial y legalizados con la apostilla de La Haya.

### Si el matrimonio es por poderes

- Acreditación del estado civil conforme a tu ley personal. Es suficiente con que presentes la certificación de aptitud matrimonial del Cónsul de tu país.
- Certificado que indique si de acuerdo a las leyes de tu país es necesario o no la publicación de edictos.
- Un poder notarial, debidamente legalizado, por el que se autorice a una persona en España a instar el expediente de matrimonio, recibir notificaciones y prestar el consentimiento matrimonial.
- La dirección del Consulado o Embajada más cercana al domicilio de la persona que está en el extranjero.

**Atención:** todos los documentos extranjeros (excepto los plurilingües) tienen que estar traducidos al Castellano por un intérprete oficial y legalizados con la apostilla de La Haya.

### Si tú o tu futuro cónyuge os encontráis en peligro de muerte

No es necesaria la apertura de un expediente para la celebración del matrimonio.



## Nork egin dezake

Zibiletik ezkontzeko bi gauza ezberdin egin behar dituzu:

1. Dokumentazioa entregatu.
2. Ezkontza-espeditentea hasi.

Erregistro Zibil guztiak ez dute modu berean lan egiten:

- Erregistro Zibil batzuetan hitzordu bakarra ematen dute dokumentazioa entregatzeko eta espeditentea hasteko. Horregatik, hitzordu bakara horretara bi ezkongaiak eta lekuko batek edo bik joan behar duzue.
- Beste Erregistro Zibil batzuek lehenengo dokumentazioa entregatzeko hitzordu bat eta ondoren espeditentea hasteko bigarren hitzordu bat ematen dute. Hitzordua dokumentazioa entregatzeko baino ez bada, ezkongaietako batek edo senide batek eraman dezake. Bigarren hitzordura, aldiz, ezkongai biek joan behar duzue lekuko batek edo bik lagunduta.

**GOGORATU:** beharrezkoak ez diren joan-etorriak saihesteko, kontsultatu ezazu aurretiaz nola jokatu behar duzun ezkontza tramitatzeraz zozan [Erregistro Zibilean](#).

## Aurkezteko epea

Agiriak aurkeztu ondoren, ezkontzeko hitzordua emango dizuete.

## Non aurkeztu

Ezkontza-espeditentea egoitza edo ohiko bizilekuagatik dagokizun Erregistro Zibilean ireki behar duzu. Ezkontideak herri ezberdinetan erroldatuta bazaudete, bien artetik nahiago duzuen aukeratu dezakezue. Horren ostean, beste herri batean ezkon zaitezke.

[Erregistro Zibiletako](#) bulegoetan izaten dira ezkontzak, betiere, ezaugarri horietako egintza bat hartzeko gutxienezko baldintzak betetzen badituzte.

Gainera, Erregistro Zibilaz arduratzen den Epailea bizi ez den udalerrietan, Udalak horretarako prestatutako beste lokal batzuetan ere egin daitezke ezkontzak.

## Quién puede realizarlo

En el matrimonio civil hay que hacer dos cosas distintas:

1. Entregar la documentación.
2. Iniciar el expediente matrimonial.

Todos los Registros Civiles no funcionan de la misma forma:

- Unos Registros Civiles dan una sola cita para que se entregue la documentación y para iniciar el expediente. Por eso, a esa única cita tenéis que acudir los dos contrayentes y uno o dos testigos.
- Otros Registro Civiles dan una primera cita para la entrega de la documentación y una segunda cita para iniciar el expediente. Si la cita es solo para entregar la documentación, la podéis entregar uno de los contrayentes o un familiar en vuestro nombre. A la segunda cita sí que tenéis que acudir los dos contrayentes y uno o dos testigos.

**RECUERDA:** para evitar desplazamientos innecesarios, antes de acudir [consulta con el Registro Civil](#) donde vayas a tramitar el matrimonio cuál es su forma de proceder.

## Plazo de presentación

Una vez entregada la documentación, te darán cita previa para la celebración del matrimonio.

## Dónde presentarlo

El inicio del expediente matrimonial debes realizarlo en el [Registro Civil](#) que te corresponda por domicilio o donde tengas tu residencia habitual. Si cada uno de los cónyuges estáis empadronados en poblaciones distintas podéis elegir la que prefiráis. Esto no es impedimento para que después los contrayentes podáis elegir celebrar la ceremonia en cualquier otro municipio.

Los matrimonios se celebrarán en las oficinas de los Registros Civiles, siempre que reúnan las condiciones mínimas para acoger un acto de estas características.

Además, en los municipios en los que no resida la persona encargada del Registro Civil, los



## Nola erantzuten dizugu

Agiriak aurkeztu eta espedientea abiarazi ondoren, ezkontza zibilaren zeremoniarako hitzordua emango dizuete eta ezkontideek, lekukoek eta agintari eskudunak hartuko duzue parte. Epailea, alkatea edo funtzionarioa izan daitezke agintari eskudun.

Ekitaldian, Kode Zibileko 66., 67. eta 68. artikulua irakurriko dizkizute eta ezkondu nahi ote duzuen galdetuko dizuete. Baiezkoa erantzuten duzuenean, ezkontzat joko zaituztete eta bai zuek, bai lekukoek eta baita ekitaldia gidatu duen agintariak ere dagokion akta sinatuko duzue.

Ahalorde bidezko ezkontzetan, espedientea abiarazi ondoren, exhortoa ezkontide atzerritarrek gertuen duen Espainiako kontsulatura bidaliko da, ezkontidea bertaratu dadin eta adostasuna eman dezan.

Ezkontza-inskripzioan, zeremoniaren ordua, data eta tokia, ezkontideen nortasun-datuak eta zeremonia gidatzeko baimendutako pertsonaren datuak jasoko dira.

Ahalorde bidezko ezkontzen inskripzioan, ahalorde-emailea nor den, ahaldunaren izen-abizenak, zeremonia zer hizkuntzatan izan den eta zein ezkontiderentzat itzuliko den zehaztuko da.

Interprete bidezko ezkontzen inskripzioetan, interpretea nor den, zeremonia zer hizkuntzatan izan den eta zein ezkontiderentzat itzuliko den zehaztuko da.

## Izapidearen kostua

Doako izapidea.

## Informazio osagarria

**Agiri eleanitzak:** Espainian baliozkotasuna izateko, herrialde hauek emandako agiriek ez dute

matrimonios se podrán celebrar también en otro local que el Ayuntamiento tenga habilitado para este fin.

## Cómo te respondemos

Una vez entregada la documentación e iniciado el expediente, os darán cita previa para la celebración de la ceremonia del matrimonio civil en la que participaréis contrayentes, testigos y autoridad competente (Juez/a, alcalde/sa o funcionario/a).

Durante el acto, os leerán los artículos 66, 67 y 68 de Código Civil y os preguntarán si consentís contraer matrimonio. Cuando respondáis afirmativamente, se os declarará unidos en matrimonio y tanto vosotros, como los testigos y la autoridad que haya celebrado la ceremonia firmaréis el acta correspondiente.

En los matrimonios por poderes, una vez iniciado el expediente, se envía el exhorto al Consulado español más cercano al contrayente extranjero, para que éste comparezca y preste su consentimiento.

En la inscripción de matrimonio constará la hora, fecha y lugar de la ceremonia, datos de identidad de las personas que contraen y de la persona autorizada para la celebración del acto.

En la inscripción de los matrimonios por poderes se indicará quién es la persona que otorga el poder, la identidad de la persona apoderada, idioma en el que se ha celebrado el acto y contrayente a quien se traduce.

En la inscripción de los matrimonios contraídos por intérprete se indicará su identidad, idioma en el que se ha celebrado el acto y contrayente a quien se traduce.

## Coste del trámite

Trámite gratuito.

## Información complementaria

**Documentos plurilingües:** Para tener validez en España, no necesitan ser legalizados o apostillados



legeztatzerik edo oharra jartzerik beharko: Alemania, Austria, Belgika, Espainia, Frantzia, Grezia, Italia, Luxenburgo, Herbehereak, Portugal, Suitza, Turkia, Eslovenia, Kroazia, Mazedonia, Bosnia-Herzegovina, Serbia eta Montenegro eta Polonia (1976ko irailaren 8ko Erregistro Zibileko akten ziurtagiri eleanitzak egiteari buruzko Hitzarmenaren arabera).

*Izatezko bikoteak:* [ezkontza zibilarekiko ezberdintasunak](#)

los documentos expedidos por los siguientes países: Alemania, Austria, Bélgica, España, Francia, Grecia, Italia, Luxemburgo, Países Bajos, Portugal, Suiza, Turquía, Eslovenia, Croacia, Ex República Yugoslava de Macedonia, Bosnia-Herzegovina, Serbia y Montenegro y Polonia (según el Convenio sobre expedición de certificados plurilingües de las actas del Registro Civil de 8 de septiembre de 1976).

*Pareja de hecho:* [diferencias con el matrimonio civil.](#)